

2017 • 2019

# Euskararen plan gidaria

30  
1987-2017  
upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

2017ko otsaila

## 1. Sarrera

Euskararen Plan Gidari hau **Unibertsitatearen IV. Plan Estrategikoan** jasotako ekintza bat da; izan ere, plan estrategiko horren bitartez, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) euskararen normalizazioan aurrera egiteko konpromisoa hartu du. Plan honen eginkizun eta xedea, beraz, NUPek gizartearekin hartu duen konpromiso estrategikoari erantzuteko mekanismoak formulatzea da. Ildo horretan, Nafarroako Gobernuak onetsi berri du **Euskararen I. Plan Estrategikoa**, eta, haren bidez, Unibertsitateak parte hartuko du, modu esplizituan, zenbait ekintzaren protagonista gisa, eta, modu inplizituan, funtsezko elementu gisa, euskara normalizatzeko eta, Planean hitzez hitz adierazi bezala, **euskararentzat paradigma berri bat** sortzen laguntzeko apustuan, bere ardatz nagusiak integrazioa, errespetua eta gizarte eta ekonomia dinamizazioa izanik.

Unibertsitatea erakunde estrategikoa da euskararentzako paradigma berri honen eraikuntzan. Alde batetik, espazio paregabea da unibertsitate aurreko heziketa lan munduarekin konektatzeko. Izan ere, lehenengoan euskarak gero eta toki handiagoa dauka eta, horrez gain, berrikuntzari eta kalitateari lotuta dago; bigarreanean, berriz, azkeneko **Nafarroako Inkesta Soziolinguistikoak** adierazten duen moduan, euskara ez dago hain hedatua. Bestetik, Unibertsitatea, ezagutza eta garapen zientifikoa barneratzeko abangoardia den aldetik, lagungarria izan daiteke **hizkuntza bera hazteko**, espazioak irekiz euskara modernitatean koka dadin.

Unibertsitatean trebatzen dira etorkizunean Nafarroako enpresak eta erakundeak zuzenduko dituzten langileak. Alde horretatik, garrantzitsua da euskara lanaren eta lanbidearen arloan barneratzea, hizkuntza berbera partekatzea baliagarria izan baitaiteke ekonomia dinamizatuko duten eta gizarte kohesioa sendotuko duten konfiantza sareak sortzeko. Hori dela eta, nahitaezkoa da euskaraz eskaintzen diren ikasketak **nahikoak** izatea, eta betiere **kalitate** handiko estandarrei lotuak. Hala

ere, ikasgeletatik haratago, garrantzizkoa da euskararen bitartez enpresen eta egresatuen arteko harremana sustatzea ere, modu horretan gure ikasleen **lan merkaturako trantsizioa** hobetzeko.

Euskararen Plan Gidari honen helburua, alde batetik, euskara zenbait esparrutan normaltasunez gauzatzea da, hala nola **irakaskuntzan, administrazioan** edo kulturaren, horietan aurrerapauso handiak eman badira ere azken urteotan. Bestetik, Planaren beste helburu bat euskara funtsezko esparruetan barneratzea da, hala nola **ikerketan**, enplegarritasunean, ekintzailertzan edo **berrikuntzan**, euskara Unibertsitateko jardueran osoki integratzeko eta, modu horretan, Nafarroan eraikitze bidean den paradigma berria lagungarria izateko.

## 2. Diagnostikoa: Euskara NUPen

### 2.1. Euskarazko ikasketen eskaria

Atal honetan aztertzen da Unibertsitatean gaur egun zenbat ikasle euskaldun dauden matrikulatuta, eta zenbat egon daitezkeen, bai eta ikasleok daukaten euskara maila ere. Lehenik eta behin, euskarazko ikasketen eskari potentziala zenbatesteko xedez, azken hamarkadan D hizkuntza-ereduko (euskarako) matrikulak izan duen bilakaera aztertu da, haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan izan den matrikulazio osoarekin konparatuz.

1. taulak erakusten du D ereduan matrikulatutako ikasleen kopurua handitu egin dela, bai balio absolutuetan, duela 10 urte baino 6.000 ikasle gehiago matrikulatu baitira, bai balio erlatiboetan, % 22tik % 24ra. Bilakaera horrek agertzen du euskarazko unibertsitate ikasketen eskari potentziala nabarmenki areagotu dela.

2. taulan unibertsitatean sartzeko probetako matrikula adierazten da, hezkuntza-ereduaren arabera.

**1. taula. Unibertsitate aurreko hizkuntza-eredu ezberdinen bilakaera Nafarroan azken 10 urtetan.**

<b>Araubide orokorreko ikasketak</b>							
Curso Ikasturtea	Modelo G G eredua	Modelo A A eredua	Modelo B B eredua	Modelo D D eredua	Resto Besteak	Total Guztira	% Modelo D D eredua %
2005/2006	49.574	16.729	125	19.198		85.626	22,42
2006/2007	49.367	17.116	144	20.388	899	87.914	23,19
2007/2008	50.993	17.101	181	21.198	1.269	90.742	23,36
2008/2009	51.987	17.144	212	21.942	2.001	93.286	23,52
2009/2010	52.971	16.630	210	22.621	2.876	95.308	23,73
2010/2011	53.920	15.944	185	23.019	4.088	97.156	23,69
2011/2012	55.018	15.080	217	23.554	57.012	99.581	23,65
2012/2013	55.440	14.019	204	23.842	74.013	100.918	23,62
2013/2014	61.231	16.006	207	24.852		102.296	24,29
2014/2015	62.503	15.636	207	25.076		103.422	24,24

*Iturria: Hezkuntza Departamentua.*

**2. taula. Matrikula unibertsitatean sartzeko probetan 2006-2016 aldian.**

Urtea	Gaztelania			A eredua			D eredua			Total Guztira	Euskara
	Ohi.	Ohiz k.	Guztira	Ohi.	Ohiz k.	Guztira	Ohi.	Ohiz k.	Guztira		
2006	1531	336	1867	91	8	99	438	94	532	2498	% 21,30
2007	1472	307	1779	81	17	98	454	80	534	2411	% 22,15
2008	1485	259	1744	94	45	106	408	86	494	2344	% 21,08
2009	1556	333	1889	116	18	134	432	117	549	2572	% 21,35
2010	1590	406	1996	139	21	160	496	108	604	2760	% 21,88
2011	1990	458	2448			0	623	106	729	3177	% 22,95
2012	2093	434	2527			0	617	127	744	3271	% 22,75
2013	2067	466	2533			0	652	137	789	3322	% 23,75
2014	2162	394	2556			0	704	124	828	3384	% 24,47
2015	2106	404	2510			0	774	124	898	3408	% 26,35
2016	2128	386	2514			0	784	107	891	3405	% 26,17

*Iturria: Sarbidea. Oharra: Ohi.: Ohikoa; Ohiz k.: Ohiz kanpokoak.*

Euskarazko probetan, matrikula nabarmenki handitu da azken urteotan, 532 ikasletik 891 ikaslara. Era berean, unibertsitatean sartzeko proba euskaraz egin duten ikasleen proportzioak % 5 inguru egin du gora, % 21,3tik % 26,1era. Joera horrek iradokitzen du euskarazko ikasketetan matrikulatutako ikasle gehienek goi mailako heziketa hautatzen dutela beren ikasketak bukatzen dituztenean.

3. taulan adierazten da NUPeko ikasleen euskara mailak zer bilakaera izan duen. Unibertsitateko ikasleen euskara mailak izan duen bilakaerak ere goranzko joera agertzen du, 2005ean % 20,18 izatetik gaur egun % 30,75 izatera igaro baita. Joera hori bat dator D ereduko matrikularen eta selektibitateko euskarazko probaren goranzko bilakaerarekin. Halaber, argitara ematen du Unibertsitateko ikasle euskaldunen kopuru handi batentzat interesgarria izan daitekeela prestakuntzako, ikerketako edo unibertsitate hedapeneko jarduerak euskaraz egitea.

### 3. taula. NUPeko ikasleen euskararen ezagutza.

IKASTURTEA	Daturik gabe	%	Batere ez	%	Zerbait	%	Ona	%	Guztira
2005/2006	542	% 7,42	4.460	%	832	%	1.475	%	7.309
2006/2007	214	% 3,13	4.295	%	840	%	1.484	%	6.833
2007/2008	234	% 3,29	4468	%	873	%	1548	%	7123
2008/2009	235	% 3,21	4528	%	906	%	1641	%	7310
2009/2010	236	% 3,34	4283	%	900	%	1656	%	7075
2010/2011	261	% 3,75	4137	%	922	%	1639	%	6959
2011/2012	418	% 6,22	3792	%	916	%	1593	%	6719
2012/2013	417	% 6,30	3621	%	919	%	1657	%	6614
2013/2014	452	% 6,59	3608	%	981	%	1819	%	6860
2014/2015	541	% 7,69	3542	%	1024	%	1932	%	7039
2015/2016	558	% 8,15	3300	%	988	%	2001	%	6847
2016/2017	539	% 7,82	3242	%	989	%	2119	%	6889

*Iturria: NUPeko inkesta soziolinguistikoa.*

## 2.2. Euskarazko ikasketen eskaintza

Euskarazko irakasgaien eskaintza ere nabarmenki hazi da azken urteotan, bereziki Europako Unibertsitate Eremua ezarri zenez geroztik. Edonola ere, hazkunde hori ez da homogenea izan titulazio guztietan, biziagoa izan baita matrikula gehien izaten dituzten horietan, esaterako ingeniartzetan eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko titulazioetan. 4. taulan erakusten da titulazio bakoitzean zenbat kreditu eskaintzen diren eta zer ehuneko egin daitekeen euskaraz.

Gaur egun, Irakasletzako graduak baino ezin daitezke oso-osorik euskaraz egin. Ingeniaritzako eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko graduetan, ehuneko hori % 30etik gorakoa da, eta oinarrizko irakasgai ia guztiak eskaintzen dira euskaraz, bai eta nahitaezko irakasgai asko ere. Gainerako titulazioetan, euskarak indar txikiagoa dauka.

Euskarazko ikasketen eskaintza eta eskaria aztertu eta gero, ondoriozta daiteke eskari potentzial handia eta gorakorra dagoela euskarazko unibertsitate ikasketei dagokienez. Alde horretatik, euskarazko kredituen eskaintza areagotu egin da, bai Unibertsitatearen Plan Estrategikoak bere agente koadroan eta bai Euskararen Plan Estrategikoak bere Unibertsitaterako helburu espezifikotan jaso bezala, eta horrek NUPera ikasle gehiago erakartzen lagun dezake. Ikasle horiek, alde batetik, D eredia ezarrita daukaten nafar ikastetxeetakoak izan daitezke, gaur egun inguruko unibertsitateetan matrikulatzen direnak, eta, bestetik, EAeko ikasleak, beren ikasketak euskaraz egin dituztenak eta NUPeko titulu eskaintzan interesa dutenak. Edozein kasutan, euskarazko eskaintzaren hazkundea lagungarria izan daiteke une honetan NUPen matrikulatzen ez den eskari potentzial bati erantzuna emateko, eta, modu horretan, Unibertsitateak 2019rako daukan xedea lortzeko, hots, 400 ikasle gehiago matrikulatu daitezkeen erdiestea.

**4. taula. Euskarazko kredituen eskaintza, titulazioaren arabera.**

IKASTEGIA/PLANA      CENTRO/PLAN	Euskaraz ko kreditua k	Euskaraz matrikulat u daitezkeen en %-a *
Nekazaritza Ingeniariei Goi Mailako Eskola Teknikoa		
Gradua Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzan	78	% 33
Gradua Elikagai Prozesu eta Produktuen Berrikuntzan	24	% 10
Telekomunikazio eta Industria Ingeniariei Goi Mailako Eskola Teknikoa		
Gradua Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoan	66	% 28
Gradua Diseinu Mekanikoko Ingeniaritzan		
Gradua Telekomunikazio Teknologietako Ingeniaritzan	42	% 18
Gradua Industria Teknologietako Ingeniaritzan	96	% 40
Gradua Informatika Ingeniaritzan	42	% 18
Gradua Ingeniaritza Mekanikoan	93	% 39
Osasun Zientzien Fakultatea		
Gradua Erizaintzan	12	% 5
Gradua Fisioterapian		
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea		
Nazioarteko Gradu bikoitza Ekonomian eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan		
Gradua Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan	96	% 40
Gradua Ekonomian	72	% 30
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea		
Gradua Haur Hezkuntzako Irakasletzan	240	% 100
Gradua Lehen Hezkuntzako Irakasletzan	240	% 100
Gradua Soziologia Aplikatuan	54	% 23
Gradua Gizarte Lanean	66	% 28
Zientzia Juridikoen Fakultatea		
Gradua Zuzenbidean	24	% 10
Gradua Lan Harremanetan eta Giza Baliabideetan	24	% 10
Zientzia Juridikoen Fakultatea / Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea		
Gradu bikoitza Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan eta Zuzenbidean	30	% 13

*Iturria: Euskararako atala.*

### 3. Ardatz eta helburu espezifikoak

Euskararen Plan Gidaria Unibertsitatearen IV. Plan Estrategikoan jasotako ekintza bat da, eta, hortaz, ez dagokio helburu estrategiko berriak zehaztea. Planarekin berarekin lotutako helburu estrategiko gisa, Unibertsitatearen Plan Estrategikoak ezartzen du hark **euskararen normalizazioan aurrera egiteko** balio behar duela. Euskararen Plan Gidaria Plan Estrategikoaren jarduera-ardatzetan oinarrituta egituratzen da, eta helburu espezifikoak eta ekintzak planteatzen ditu bere ardatz guztietan. Plana ardatz hauetan dago egituratuta:

-  **Prestakuntza**
-  **Antolaketa eta baliabideak**
-  **Pertsonak**
-  **Ingurunea**
-  **Ikerketa**
-  **Nazioartekotzea**



### **Prestakuntzaren ardatza**



A-PRE1. Irakaskuntza integrala, kalitatezkoa eta eleaniztuna hobetzea.

A-PRE2. Irakaskuntza-materialietako hizkuntza-kalitatea bermatzea.

A-PRE3. Euskarazko hizkuntza-prestakuntzarako eskaintza

Unibertsitateko komunitate osora zabaltzea.

### **Antolaketa eta baliabideen ardatza**



A-AEB1. Unibertsitatearen web orrialdearen edukiak eta irudia euskaraz garatzea.

A-AEB2. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzea.

A-AEB3. Jendearentzako arreta eta administrazio prozesuak euskaraz egin daitezkeela bermatzea.

### **Pertsonen ardatza**



A-PER1. Euskararen alorreko helburuak lortzea ahalbidetuko duten etorkizuneko giza baliabideen beharrianen plangintza egitea.

A-PER2. Unibertsitatean lagunarteko euskararen erabilera sustatzea.

### **Ingurunearen ardatza**



A-ING1. Eskualdeko enpresekin eta erakundeekin loturak ezartzea, euskarazko ikasketen enplegarritasuna sendotzeko.

A-ING2. Euskararen gizarte-, kultura- eta hezkuntza-ingurunearekiko elkarrekintza bultzatzea.

A-ING3. NUPeko (beste hizkuntza batzuetako) azterketen eta ikerketen euskarazko dibulgazioa sustatzea.

### **Ikerketaren ardatza**



A-IKE1. Euskarazko bikaintasun ikerketa zientifikoa bultzatzea.

A-IKE2. Euskara erabilpen akademiko eta zientifikoko hizkuntza gisa garatzen laguntzea.

A-IKE3. Berrikuntza eta transferentzia ahalbidetuko duten sareak sortzen laguntzea, euskara elementu komun gisa erabiliz.

### Nazioartekotzearen ardatza



A-NAZ1. Erakundeekin eta unibertsitateekin gutxiengoaren hizkuntzen alorrean lankidetzan aritzeko formulak bilatzea.

## 4. Jarduera plana

Behin ardatz bakoitzerako helburuak zehaztuta, 2017-2019 aldian gauzatuko diren jarduerak markatu dira, dagozkien arduradunekin, kronogramarekin eta beharrezko baliabideekin batera. Taulan 2016. urtea ere jaso da, une honetan abian diren jarduerak ere ager daitezzen.

Lehenengo zutabean, egin beharreko jarduera adierazten da. Bigarren zutabean, jarduera bakoitzari lotutako helburu espezifikoak (bat edo bat baino gehiago). Jarraian, jarduera bakoitzerako kronograma bat ezartzen da. Laugarren zutabeak erreferentzia egiten die jarduera zehatz bakoitzak eduki ditzakeen publiko gehigarri espezifikoak. Azkenik, jarduera bakoitzaren arduraduna edo arduradunak adierazten dira, bai eta hura aurrera eramateko baliabide espezifiko gehigarriak ere, beharrezkoak izanez gero.

## A1 TAULA. EUSKARAREN PLAN GIDARIAREN JARDUERAK

JARDUERA	HELBURU OPERATIBOA	KRONOGRAMA				ARDURADUNA	BALIABIDE GEHIGARRIAK
		2016	2017	2018	2019		
<b>PRESTAKUNTZAREN ARDATZA</b>							
Euskarazko kredituen kopurua handitu (1.488ra, gutxienez).	<b>A-PRE1</b>					IRAKASKUNTZA/IKASTEGLIAK/BATZORDEA	BAI
Euskarazko eskaintza handitzeko irakaskuntza beharrak identifikatu eta planifikatu.	<b>A-PRE1</b> <b>A-PER1</b>					IRAKASKUNTZA/EUSKARA/SAILAK/BATZORDEA	EZ
On-line irakasgaiak euskaraz eskaini.	<b>A-PRE1</b>					IRAKASKUNTZA/EUSKARA/HGMI/IKASTEGLIAK	EZ
Irakasle eta irakasleentzako materialen itzulpen eta aholkularitza zerbitzua zabaldu.	<b>A-PRE2</b>					IRAKASKUNTZA/EUSKARA	BAI
Euskarazko irakaskuntza-materialaren argitalpena eta zabalpena sustatu, bereziki oinarrizko irakasgaietan.	<b>A-PRE2</b>					IRAKASKUNTZA/EUSKARA/ARGITALPENAK	BAI
C1 mailako euskara teknikoko eta gutxienez 12 ECTS kredituko ikastaroak eskaini.	<b>A-PRE3</b>					HIZKUNTZEN GOI MAILAKO IKASTEGIA	BAI

<b>ANTOLAKETA ETA BALIABIDEEN ARDATZA</b>							
Euskarazko web orrialdearen egoeraren diagnostikoa egin.	<b>A-AEB1</b>					IRAKASKUNTZA/EUSKARA	EZ
Euskarazko web orrialdearen edukiak eguneratzeko prozedura bat ezarri.	<b>A-AEB1</b>					WEB BATZORDEA/KOMUNIKAZIOA IRAKASKUNTZA/EUSKARA	EZ
Euskarazko ikasketa ofizialen aitortpena egiteko administrazio prozedura ezarri.	<b>A-AEB2</b>					EUSKARA/IRAKASKUNTZA/IKASLEAK	EZ
Prozedura bat ezarri, hizkuntza profil egiaztatua aitortzen duten lanpostuetan profil hori daukaten langileak daudela bermatzeko.	<b>A-AEB3</b>					EUSKARA/KUDEATZAILTZA	EZ
Profilak antolamendu egitura berrira egokitu.	<b>A-AEB3</b>					EUSKARA/KUDEATZAILTZA	EZ
<b>PERTSONEN ARDATZA</b>							
Prestakuntza planak egitea eta ezartzea, eta AZL/I-iren behar espezifikoak jasotzea.	<b>A-PER1</b>					IRAKASKUNTZA/EUSKARA	EZ
Kontratazio zerrendak berri eta eguneratu.	<b>A-PER1</b>					KUDEATZAILTZA	EZ
Unibertsitateko komunitatea euskararen erabilerari mesede egiten dioten proiektuetan sartu	<b>A-PER2</b>					IRAKASKUNTZA/EUSKARA/ZABALPENA	EZ

(Mintzanet, Eztabaida Liga).							
Euskarazko kultura eta kirol jardueren eskaintza birbideratu.	<b>A-PER2</b>					HEDAPENA/EUSKARA	EZ
Euskararen erabilera bultzatzera bideratutako ikasle-ekimenak sustatu (euskara eskolak, kultura jarduerak).	<b>A-PER2</b>					EUSKARA/IKASLEAK/IKASLEEN KONTSEILUA	EZ
<b>INGURUNEAREN ARDATZA</b>							
Euskara-planak garatu dituzten enpresekiko (Mondragon kooperatiba, Elhuyar) harremana formalizatu.	<b>A-ING1</b>					IRAKASKUNTZA/EUSKARA	EZ
Euskarazko praktikak fakultate gehiagotan eskaini.	<b>A-ING1 A-PRE1</b>					UGF	EZ
Lan poltsa publiko eta pribatu bat sortzea.	<b>A-ING1</b>					EUSKARA/UGF	EZ
Unibertsitateari laguntzea, jarduera instituzionalek profil elebiduna izan dezaten (30. urteurrena, e.a.).	<b>A-ING2 A-ING3</b>					EUSKARA/KOMUNIKAZIOA/IDAZKARITZA	EZ
Nafarroako Gobernuaren Plan Estrategikoaren hedapenean parte-hartze aktiboa eduki.	<b>A-ING2</b>					EUSKARA/GIZARTE KONTSEILUA	EZ
Gizarte erakundeekin lankidetzan aritu,	<b>A-ING2</b>					IRAKASKUNTZA/EUSKARA	EZ

euskarazko ikasketen eskaria identifikatzeko.							
Eztabaida Ligan talde euskaldunekin parte hartu.	<b>A-ING2</b> <b>A-PER2</b>					UNIBERTSITATE ZABALPENA	
Euskaraz gauzatzen diren edo hizkuntzaren errealitateari erantzuten dioten unibertsitate zabalpeneko jarduerak gara daitezela sustatu.	<b>A-ING2</b> <b>A-PER2</b>					UNIBERTSITATE ZABALPENA	EZ
Bigarren hezkuntzako eta lanbide heziketako ikastetxeekin koordinazio eraginkorra edukitzeko mekanismoak sortu (terminologia, materialak).	<b>A-ING2</b> <b>A-ING3</b>					EUSKARA/IRAKASKUNTZA	EZ
<b>IKERKETAREN ARDATZA</b>							
2017ko IKERGAZTE kongresua antolatu.	<b>A-IKE1</b>					EUSKARA/IKERKETA	BAI
Euskarazko tesien, ikasketen amaierako lanen eta artikuluen zientifiko argitalpena eta hedapena bultzatu.	<b>A-IKE1</b> <b>A-ING3</b>					EUSKARA/LIBURUTEGIA	BAI
Tesietako epaimahaietan parte har dezaketen irakasleen poltsak sortzen lagundu.	<b>A-IKE1</b>					NADOE/IRAKASKUNTZA/EUSKARA	EZ
Euskara erabilpen zientifiko eta akademikoko hizkuntza gisa garatzen lagundu.	<b>A-IKE2</b>					FILOLOGIA SAILA/ EUSKARA	BAI

Euskaltzaindiarekin hitzarmena indartu, A-IKE2 helburuan laguntzeko.	<b>A-IKE2</b>					IRAKASKUNTZA/EUSKARA	EZ
POCTEFA proiektuetan eta ezagutzaren klusterretan parte hartu, inguruko unibertsitate eta erakundeekin (UPV-EHU, Mondragon, Deustu).	<b>A-IKE3</b>					IRAKASKUNTZA/EUSKARA/IKASLEAK	EZ
<b>NAZIOARTEKOTZEAREN ARDATZA</b>							
Gutxiengoaren hizkuntzetan eta eleaniztasunean jarduten duten europar erakundeetan harremanak bilatu.	<b>A-NAZ1</b>					NAZIOARTEKOTZEA/EUSKARA	EZ
Unibertsitate eta sailekin lankidetzak-hitzarmenak bilatu gutxiengoaren hizkuntzen alorrean.	<b>A-NAZ1</b>					EUSKARA/FILOLOGIA/NAZIOARTEKOTZEA	EZ
Euskal diasporaren azterketan eta euskal ikasketetan espezializatutako unibertsitateekin (Nevada, Boise) lankidetzan aritu.	<b>A-NAZ1</b>					NAZIOARTEKOTZEA/EUSKARA	Ez

## 5. Planaren jarraipena

Planaren jarraipena eta ezarpena Hizkuntza Plangintzarako Zuzendaritzarekin eta Hizkuntza Plangintzarako Atalarekin koordinatuta egingo da, Irakaskuntzako Errektoreordetzaren jarduera berekien barruan. Euskara Batzordeak urteko txosten bat jasoko du, eta haren bidez jakinaraziko zaio helburu bakoitza zer neurritan betetzen den. Hala, helburuok guztiz gauzatzea lortzeko mekanismoak ezarriko dira.